

## 290.500 euroko isuna jaso dute Ernaiko 133 kidek

---

LA HAINE - EUSKAL HERRIA :: 31/05/2024

Aitor Zelairi eta Galder Barbadori elkartasuna adierazteko Bilbon eta Gasteizen egindako ekintzengatik isundu dituzte, Mozal Legea baliatuta.

2023ko irailaren 22an, Bilboko espainiar Gobernuaren Ordezkariordeztan eta Gasteizko Ertzaintzaren polizia-etxean kateatu ziren Ernaiko hainbat kide Aitor Zelaia eta Galder Barbadori espetxeratze agindua salatze, beste batzuk trafikoa sentadekin mozten zuten bitartean. Ertzaintzak 133 pertsona identifikatu zituen.

Atzo egindako agerraldian, identifikatutako 133 gazteei 1.500 eta 2.500 euro arteko isunak bidali dizkietela jakinarazi zuen gazte antolakundeak, 290.500 euro orotara. Lakuako Segurtasun Sailak jarri du gazteen aurkako salaketa, Mozal Legea aplikatuta.

Agerraldian "desproporzionatua den operazio baten jopuntuan topatzen" direla salatu dute, "Ernairen aurkako eraso argi bat" dela nabarmenduz. Izan ere, ordura arte jasandako "erasorik larriena" dela adierazi dute, "antolakundearen jardun politikoa hipotekatzeari eta proiektuarekin aurrera ezin egitea" helburu gisa duena. Honen atzean erabaki politiko bat dagoela ere salatu dute, "Ernairen aurka izan duten obsesio etengabea beste urrats bat".

Egoera honi aurre egiteko, administrazioarekiko auzien epaitegian isunen aurkako helegitea aurkeztu eta prozesu judiziala abiaraziko dutela aurrerarazi dute. Era berean, elkartasun zozketa eta crowdfunding bat egingo dute, eta euskal gizarteari kanpaina ekonomikoan parte hartzera eta elkartasunez erantzutera deitzen dute.

---

<https://eh.lahaine.org/290-500-euroko-isuna-jaso>